

 <p>Errenteriako Udala</p>	<p>VSEZ</p>	<p>Salbuespenak eta hobariak: ur eta hondakin bilketaren gaineko tasak</p> <p>Exenciones y bonificaciones: tasas de agua y residuos.</p>
---	--------------------	--

ZER DA?

Ur-hornidura eta estolderia zerbitzuaren gaineko tasan salbuespena eskatzea edo hondakinak bildu eta ezabatzeko zerbitzuaren tasan hobaria eskatzea.

Ur-hornidura eta estolderia zerbitzuaren gaineko tasaren salbuespenak

- Jubilatuen egoitzak
- Errenteriako Udalak kudeatutako ikastetxe publikoak, haurreskolak barne.
- Eusko Jaurlaritzak kudeatutako ikastetxe publikoak etxe-tarifen arabera izango dira kargatuak edo zergatuak.
- Ordaindu beharrik izango ez duten gutxiengo hiruhilabeteko ur-kontsumoa 30m³ jartzen da. Alegia, ondoren aitatzen direnek: Errenteriako Udalak errekonozituta dauzkan auzo elkarteek, ongintza establezimenduak, hots, Gurutze Gorria, DYA eta dirua irabaztea helburutzat ez daukaten gainontzeko erakundeak (eginkizun nagusia gastronomia daukaten elkarteak eta erakunde politiko eta sindikalak izan ezik).

Hondakinak bildu eta ezabatzeko zerbitzuaren tasaren hobariak

1.- Tarifaren %100eko hobaria izango dute

- Irakaskuntza eta osasun-zentro publikoak
- Udal Patronatuak
- Ongintza zentroak, Gurutze Gorria eta DYA
- Auzo elkarteak
- Dirua irabaztea helburu ez duten herriko erakundeak (jarduera nagusia gastronomia duten elkarteak eta erakunde politiko eta sindikalak izan ezik).

2.- Tarifaren %20eko hobaria izango dute:

- Kartoi-papera eta beira gaika bildu eta birziklatzeko programetan aktiboki laguntzen duten merkataritza jarduerak, Sanmarko Mankomunitateak urtero aurkeztutako datuen arabera (tasaren bidalketa egiten den urtearen aurrekoari dagozkien datuak).
- Epea: eskaerak 2022ko ekainaren 30 baino lehen egin behar dira. Hobariak urtero berrituko dira, aldez aurretik eskaerarik egin gabe.

3.- Tarifaren %40eko hobaria izango dute (zuzenean ezartzen da, aldez aurretik eskaerarik egin gabe, betiere baldintzak betetzen badira).

- Auzo-konpostatze eta etxeko konpostatze Udal programetan alta emandako etxebizitzak, betiere horietan modu aktiboan parte hartzen badute, Ingurumeneko Sailak emandako datuen arabera.

¿QUÉ ES? ¿EN QUÉ CONSISTE?

Solicitud de exención en la tasa de servicio de suministro de agua alcantarillado o solicitud de bonificación en la tasa del servicio de recogida y eliminación de residuos..

Exenciones en la tasa del servicio de suministro de agua y alcantarillado.

- Los hogares de Jubilados
- Los centros docentes públicos, incluidas las escuelas infantiles, cuya titularidad ostenta el Ayuntamiento de Errenteria.
- Las viviendas cuya titularidad corresponde a las entidades promotoras que las hayan edificado siempre que no constituyan residencia habitual y no hayan consumos.
- Se establece como mínimo exento al trimestre la cantidad de 30 m³, para los usos de agua pertenecientes a : las asociaciones de vecinales reconocidas como tales por el Ayuntamiento de Errenteria, establecimientos de beneficencia, Cruz Roja, DYA, y el resto de organizaciones sin ánimo de lucro (excluidas las Sociedades cuya actividad principal sea la gastronómica así como las organizaciones políticas y sindicales)

Bonificaciones en la tasa de servicio de recogida y eliminación de residuos

1.- Del 100% de la tarifa

- Los centros públicos de enseñanza y asistencia sanitaria.
- Patronatos Municipales.
- Los establecimientos de beneficencia, Cruz Roja y DYA
- Asociaciones vecinales
- Organizaciones populares sin ánimo de lucro (excluidas las sociedades cuya actividad principal sea la gastronómica así como las organizaciones políticas y sindicales).

2.- Del 20% en la tarifa de:

- Establecimientos que colaboren activamente en programas de separación selectiva y reciclaje de cartón-papel y vidrio, de acuerdo con los datos suministrados anualmente por la Mancomunidad de Sanmarkos (datos correspondientes al año inmediatamente anterior al de devengo de la tasa).
- Plazo: las solicitudes deberán realizarse antes del 30 de junio de 2022.
- Las bonificaciones concedidas se renovarán anualmente sin previa solicitud siempre que se cumplan los requisitos señalados.

3.- Del 40% en la tarifa (se aplica directamente sin previa solicitud siempre que se cumplan los requisitos)

- Viviendas que, que estando dadas de alta en los programas municipales de compostaje doméstico y comunitario, participen

4.- Tarifaren %27ko hobaria izango dute (zuzenean ezartzen da, aldeztu aurretik eskaerarik egin gabe, betiere baldintzak betetzen badira):

- Bosgarren edukiontzia bidez (marroia) biohondakinak gaika biltzeko Udal programan modu aktiboan parte hartzen duten etxebizitzak. Horretarako, aipatutako programan parte-hartze aktibotzat hartuko da, 2022ko urtarrilaren 1 eta apirilaren 30 arteko epealdian, hilean gutxienez hiru (3) aldiz bosgarren edukiontzia erabilera elektronikoa egin baldin badira, egun ezberdinetan.

Hondakinak bildu eta ezabatzeko zerbitzuaren tasaren salbuespenak

Eraiki duten promotoreen izeneko etxebizitzak, betiere ez badira ohiko etxebizitzak.

activamente en los mismos, de acuerdo con los datos suministrados por el Departamento de Medio Ambiente.

4.- Del 27% en la tarifa (se aplica directamente sin previa solicitud siempre que se cumplan los requisitos)

- Viviendas que participen activamente en el Programa municipal de recogida selectiva de biorresiduo mediante el quinto contenedor (marrón). Se entenderá por participación activa en el citado programa, si en el período comprendido entre el 1 de enero y el 30 de abril de 2022, se ha procedido de media anual al uso electrónico del quinto contenedor mediante un mínimo de tres (3) aperturas al mes en días diferentes.

Exenciones en la tasa de servicio de recogida y eliminación de residuos

Las viviendas cuya titularidad corresponde a las entidades promotoras que las hayan edificado y no constituyan residencia habitual.

NORK ESKA DEZAKE?

Ordainagiriaren titularrak edo haren ordezkariak, behar den baimena aurkeztuta.

¿QUIÉN LO PUEDE SOLICITAR?

La persona titular del recibo o su representante, con la debida autorización.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- [E00000 Eskaera orokorra, inprimaki normalizatuan.](#)
- [E00001 Ordezkapen idatzia](#)

1. Eskaera-orria eredu normalizatuan.

Ordezkarriak eskatzen badu: inprimakia, eredu normalizatuan, baimena emanaz. Interesdunaren NAN fotokopia edo horren ordezkariaren beste nortasun agiriren bat.

DOCUMENTACIÓN A APORTAR

- [E10000 Solicitud general, en modelo normalizado.](#)
- [E10001 Escrito de representación](#)

1. Solicitud en modelo normalizado.

Si lo solicita su representante: impreso, en modelo normalizado, concediendo la autorización. Fotocopia del DNI de la persona interesada u otro documento de identidad que lo sustituya.

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- ZU! Zure Udala - Arreta Zerbitzua (Udaleko behe solairuan). Astelehena: 7:30-14:00; asteazkena eta ostirala: 7:30-15:00; asteartea eta osteguna: 7:30-19:00. Hitzordua: arratsalde gomendagarria, goizean aukerazkoa. 010 edo 943 449 600 deituz, zein udalean
- Urriak 1eko 39/2015 legearen 2.1 artikulua aipatzen dituen administrazioetako edozeinen gainerako erregistro elektronikoen. (Errenteriako udalaren SIR kodea: L01200678)

Postaz:

- ZU! Zure Udala - Arreta Zerbitzua (Udaletxeko beheko solairuan): Herriko Plaza z/g. 20100 Errenteria. (Korreo bulegoetan legeak arautzen duen moduan)

Telefonoz:

- Ezin da telefonoz eskatu. Dena den, argibide gehiago behar izanez gero, 943 44 96 00 - 010 telefono zenbakira dei daiteke.

¿DÓNDE SE SOLICITA?

Presencialmente:

- ZU! Zure Udala - Servicio de Atención. (Ayto pl.baja): Lunes: 7:30-14:00; miércoles y viernes: 7:30-15:00; martes y jueves: 7:30-19:00. Cita: recomendada para acudir por las tardes, por la mañana, optativa. Llamando al 010 o al 943 449 600 y en el Ayto.
- En los restantes registros electrónicos de cualquiera de las Administraciones a las que se refiere el art. 2.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre. (Cód. SIR del ayuntamiento de Errenteria: L01200678)

Correo postal:

- ZU! Zure Udala - Servicio de Atención. (Casa Consistorial pta. baja): Herriko Plaza z/g. 20100 Errenteria. (En las oficinas de correos en la forma que reglamentariamente se establece.)

Telefónicamente:

- No se puede solicitar por teléfono. No obstante se puede solicitar más información llamando al teléfono 943

Internet bidez:

- [Hasi online tramitazioa](#)

Telemáticamente:

- [Iniciar la tramitación online](#)

KOSTUA

Indarrean dauden tarifak tasa bakoitza arautzen duen ordenantzaren estekan zehazten dira.

COSTE

Las tarifas vigentes se detallan en el enlace de la ordenanza reguladora de cada tasa.

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: 2 hilabete.
Legezko gehieneko epea: 6 hilabete.
Administrazioaren isiltasunaren ondorioak: aldekoa, baldintzak betetzen baditu.

PLAZO DEL PROCEDIMIENTO

Plazo estimado: 2 meses,
Plazo máximo legal: 6 meses.
Efectos del silencio administrativo: positivo, siempre y cuando cumpla los requisitos.

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [Tokiko Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araua](#) -
- [3.01 Tasa: ur-hornidura eta estolderi zerbitzua](#) -
- [3.02 Tasa: hondakinen bilketa eta ezabaketa zerbitzua](#) -

NORMATIVA APLICABLE

- [Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa](#) -
- [3.01 Tasa: servicio de suministro de agua y alcantarillado](#) -
- [3.02 Tasa: servicio de recogida y eliminación de residuos](#) -

ONDOREN ADMINISTRAZIOAK EGIN BEHARREKO IZAPIDEAK

- 1.- Dokumentazioa jaso eta egiaztatu, eskaera eskaneatu eta erregistratu.
- 2.- Baldintzak betetzen direla egiaztatu eta txostena eman.
- 3.- Ebazpena eta jakinarazpena interesdunari.

TRÁMITES POSTERIORES A REALIZAR POR LA ADMINISTRACIÓN

- 1.- Recibir y comprobar la documentación, escanear y registrar la solicitud.
- 2.- Comprobar el cumplimiento de los requisitos y emisión de informe técnico.
- 3.- Resolución y comunicación al interesado

UDAL SAIL/AZPISAIL ARDURADUNA

Ogasuna eta Garapen Ekonomikoa - Udal zergen kudeaketa

ÁREA/SUBÁREA MUNICIPAL RESPONSABLE

Hacienda y Desarrollo Económico - Gestión de tributos locales

OHARRAK

- Ur-hornidura eta estolderia zerbitzuaren gaineko tasa
- Matxuraren baten ondorioz kontsumoa altua izan bada, batez

OBSERVACIONES

- Tasa del servicio de suministro de agua y servicio de alcantarillado

besteko kontsumoa indarrean dagoen tarifaren arabera fakturatuko da eta gainerakoa hornitzaileak fakturatutako prezioan.

- Aipatutako tarifa eskatzeko epea 4 hilabetekoa izango da, borondatez ordaintzeko epea amaitzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Eskaerarekin batera, matxura konpondu dela frogatzeko, egiaztagiri bat (konponketaren faktura) aurkeztu beharko da.

- En casos de consumo elevado motivado por una avería, se facturará el consumo promedio a la tarifa vigente y el resto al precio facturado por la entidad suministradora.

- El plazo para solicitar lo señalado anteriormente será de 4 meses contados a partir del día siguiente a la finalización del plazo del período voluntario de pago. Junto a la solicitud se deberá entregar documentación que acredite la reparación de la avería (factura)

JARRAIBIDEAK (barne erabilera)

INSTRUCCIONES (uso interno)

URL zuzena:

EU - <https://uzt.gipuzkoa.eus/home.do?De=EU06712240>

CAS - <https://uzt.gipuzkoa.eus/home.do?De=CA06712240>

Informazioa: Ixiar Lujambio (1301)

A. UR-HORNIDURA ETA ESTOLDERIA

A.1 Salbuetsita

- Jubilatuen egoitzak
- Errenteriako udalak kudeatutako Ikastetxe Publikoak, haurreskolak barne.
- Eraiki duten promotoreen izeneko etxebizitzak, betiere ez badira ohiko etxebizitzak eta ez badago kontsumorik.

A.2 Hobariak

- Eusko Jaurlaritzak kudeatutako Ikastetxe Publikoak, etxe-tarifen arabera ordainduko dute.
- Hiruhilabeteko ur-kontsumoa 30m³ arte salbuetsita izango dute:
 - Ongintza zentroak, Gurutze Gorria eta DYA
 - Auzo elkarteak
 - Dirua irabaztea helburu ez duten herriko erakundeak (jarduera nagusia gastronomia duten elkarteak eta erakunde politiko eta sindikalak izan ezik).
- Udal Patronatu, Fundazioek eta udalaren kirol instalazioak erabiltzeko lagapena duten elkarte eta kirol-taldeek, metro kubikoa 0,32€ ordainduko dute.

A.3. Ur matxura - isuriak

Herritarren bat etortzen bada ur-faktura oso altua duela esanez, eskaera bat bete behar du. Eskaera egiteko epea 4 hilabetekoa da, ordainagiria ordaintzeko borondatezko epea amaitzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Eman beharreko pausuak hauek dira:

- Gerkudaren bidez Hiri Mantenera bidaliko dugu mezu bat (*). Uretako udal langileren bat ikustera bertaratuko da, eta matxura-isuria herritarrarena den edo irakurketan

akatsen bat egon den adieraziko dio herritarrari. Zer egin behar duen ere azalduko dio:

a. Irakurketan akatsa bada:

Zerga Kudeaketakoek Hiri Mantenuari txostena eskatu ondoren, dagokion kontsumoarekin likidazio berri bat prestatuko diote (dagokion prezioan).

b. Matxura bada:

- Hiritarrak bere kabuz konpondu beharko du iturgin pribatu bati deituz.
- Iturginaren faktura ZU!n aurkeztu behar dute eskaera orokor batekin, ordainagiriak zuzentzeko eskatuz. Zerga Kudeaketara bideratuko dugu eskaera.
- Zerga kudeaketak gaia aztertuko du (txostena eskatu dezake Hiri Mantenua). Herritarrak arrazoa badu, aurreko ordainagiriak ezabatu eta likidazio berri bat prestatuko dute. Ur kontsumoa berbera izango da, berez ura hori kontsumitu baita, baina uraren kostaprezioa desberdina izango da.
 - Likidazioa : Azken 2 edo 3 ordainagirien batez bestekoa... prezio normala kobratuko da
 - Gainerakoa, kontsumitutako litroak arte... kostaprezioa

Adibidez, 300 litroko faktura zuen eta azkeneko 2 fakturretan 20 litro kontsumitu ditu.

- *Likidazio berria: 20 litro.... prezio normalera kobratuko zaio (10,12€)*
- *280 litro.. kostapreziora (5,00€).*

(*) Zergadunak argi badu matxura-isuria dela, zuzenean eskaera egin dezake konponketaren faktura erantsiz. Kasu hauetan, Gerkud eta Hiri Mantenuko langilea joatearena ez da beharrezkoa.

B. HONDAKINEN BILKETA ETA EZABAKETA

B.1 Salbuetsita

- Irakaskuntza eta osasun-zentro publikoak
- Udal Patronatuak
- Ongintza zentroak, Gurutze Gorria eta DYA
- Auzo elkarteak
- Dirua irabaztea helburu ez duten herriko erakundeak (jarduera nagusia gastronomia duten elkarteak eta erakunde politiko eta sindikalak izan ezik).
- Eraiki duten promotoreen izeneko etxebizitzak, betiere ez badira ohiko etxebizitzak.

B.2 Hobariak

1. Etxebizitzak

- **% 27ko hobaria** emango zaie partaidetza aktiboa duten etxebizitzetzi, hau da, urtarrilaren 1etik apirilaren 30era bitartean 5. edukiontzia hilean 3 aldiz gutxienez erabili bada, egun desberdinetan.
- Ez da hobaria jakinarazten, zuzenean aplikatzen da
- Etxebizitza bakoitzak konpostatzea ala 5. edukiontzia erabiltzea erabaki behar du, haien artean bateraezinak dira eta beraz dagozkien hobariak ere ez dira

metagarriak.

- Landa eremuan dauden etxebizitza bloke batzuk, Añabitarte, Azañeta eta Sagardiburu auzoak hain zuzen ere, hondakin txartel arruntak erabiltzen dituzte eta funtzionamendua herriko beste edozein etxebizitza bezalakoa dute.

2. Saltokiak: kartoi komertzialaren atez ateko bilketa edukitzeko

- Saltokietan bertan atez-atez papera eta kartoia jasotzea onura izateaz gain, tasaren **%20a hobaria** egiten zaie. Eman beharreko pausuak:
 - Ekoizle handia izan behar du, paper-kartoi bolumen garrantzitsua sortzea, alegia.
 - Kartoi-papera eta beira gaika bildu eta birziklatzeko programetan aktiboki parte hartu behar du. Horretarako **Sanmarko Mankomunitatera deitu behar dute (943-214977)** alta emateko. Behin onartu ondoren, urtero txosten bat bidaliko dute Zergetara ondo ari diren ala ez esanez.
 - Hobaria eduki ahal izateko, **ekainaren 30a baino lehen, eskaera orokor** batean egin behar dute eskaria eta Zerga Kudeketara bideratu.
 - Onartzen bada, hobaria hurrengo urteko zabor zergan egingo da (Sanmarko Mankomunitateak prestatzen duen aurreko urteko datuen txostena behar baitute). Ez bada onartzen, saltokiari jakinaraziko zaio.
 - Baldintzak betetzen jarraitzen badute, hobariak urtero berrituko dira aldez aurretik eskaerarik egin gabe

3. Auzo-konpostatze eta etxeko konpostatzea

- **Tasaren %35eko hobaria** izango dute (zuzenean ezartzen da, aldez aurretik eskaerarik egin gabe, betiere baldintzak betetzen badira) auzo-konpostatze eta etxeko konpostatze Udal programetan alta emandako etxebizitzak, betiere horietan modu aktiboan parte hartzen badute, Ingurumeneko Sailak emandako datuen arabera. Izadi 21 enpresa, noizbehinka joaten da begiratzen ea konposta ondo egiten ari diren.
- Auzo-konpostatze eta etxeko konpostatze **Udal programetan alta emateko, posta elektronikoa bat bidali behar dugu Ingurumenara**. Bertan jabearen izen-abizenak, baserriko izena, helbidea eta telefonoa adierazi behar da.
- Konpostagailuak, Oiartzungo Atalaia Poligonoan edo Garberako bidean dauden garbigunetan eskatu ahal dira.

4. Baserriak

- Ez zaie etxebizitzetara egiten zaien hobaria aplikatzen (%27). Hobaria egitea nahi izanez gero, etxeko konpostatze Udal programan alta eman behar dute eta baldintzak bete.
- Hainbat baserri nahiz eta Oiartzungo eremuetan kokatuta egon, Errenteriako udalak egiten du zabor-bilketa, bi udalen artean hitzarmena sinatuta baitute. Baserri hauetako funtzionamendua Errenteriako baserriena bezalakoa da.

B.3 Erreklamazioak

- Hondakinen zergan hobaria aplikatu ez zaielako

erreklamazioak egiteko, birjapen errekurtsua bete eta Zerga Kudeaketara bideratu. Onartzen bazaie, zuzenean aplikatuko die hobaria eta bakarrik onartzen ez diren erreklamazioak jakinaraziko dituzte.

- Hondakinen zergan hobari eskaera ez zaiola onartu eta oso argi badauka hitzordua eskatu nahi duela gaia argitzeko, eskaera orokorra gaia azalduz eta hitzordua eskatuz Ingurumenera bideratu.
- Zaborretan hobaria ez egitearen arrazoietakoa bat honako hau da: etxebizitza bat baino gehiagoren duten jabeek, etxe guztietako mugimenduak, etxe bakarrean zenbatu baitira. Horrelako kasuetan, erreklamazioa egin dezatela.